

## egunekoa

Juani Ruiz

(Palestinako UHWC gobernuaren kanpoko erakundeko proiektuen koordinatzailea)

# Amets batengatik borrokan

**I**ruñeko lagunak deitu zidaten ezustean —oso lagun maiteak eta solidarioak—, eta artikulu bat idazteko eskatu zidaten, gaur egun gori-gori dagoen auzi bati buruz: «Palestinako Intifada eta euren lurra eta askatasuna berreskuratzeko borroka». Baiezkoa eman nien. Palestinaren auziaz pentsatzen dudanean, zera galdetu ohi diot askotan neure buruari: jendeak ulertzen al du benetan zer gertatzen ari den? Ba al dakite zergatik ari diren borrokan elkarren kontra hainbat arraza eta erlijioetako sei milioi pertsona? Zergatik izan den lurralde hori betidanik desiratu eta bortxatu? Gizakiok ez gara aldatzen. Interes propioak beste guztia- ren gainera jartzen ditugu bakoitzaren nahia egiteko; seme-alabei gure okerrak pasatzen dizkiegu eta lasai asko gelditzen gara; botere nahia, gorrotoa eta amorrua erakusten ditugu, eta bakea, elkar ulertzea, integrazioa, errespetua eta giza ha- remanahaztuta ditugu.

Palestinan 15 urte baino gehiago dar- mazkit, eta ez dut sei hilabete baino gehiago iraun duen bakerik ezagutu; iraultza lehenengo Intifadan, Golkoko ger- ra ondoren... gerra horrek herri handi bat suntsitu zuen interes ekonomiko eta estratejikoengatik. Gure herri maitetik kanpo bizi diren palestinarrek hitzarme- nak sinatu zituzten Madrilan eta Oslon. Nabarmendu egin nahi dut hori, ez baitu- te inoiz ulertu Goliat handiaren aurka es- kuen indarra soilik erabiliz borrokatu den herria. Hitzarmen kaskarrak sinatu zituz- ten, eta horrek 2000ko irailetik izan du- gun indarkeria leherketarik handiena era- gin zuen.

Zergatik ari da gertatzen hori guztia? Batetik, Israeliek ez ditu palestinar herria-

ren eskubideak onartzen, eta ez dio he- rriari berez dagokiona ematen. Bestetik, geu ere ez gara gai gauzak ondo egiteko. Israeliek nagusitasunez tratatzen du herri palestinarra, bere kulturaz eta ohiturez harro dagoena. Palestinarrak bakarrik sentitzen dira, inork ez ditu ulertzen mun- duan. Nahiz eta diru laguntzak jaso, ez dute laguntza politikorik, eta noizbait izan dutenean inposatzailea izan da. Bo- rroka hau ulertzeko bertan bizi behar da. Bi milioi palestinar baino gehiago gara, eta hala-hola irauten dugu: zapalketa, dis- kriminazioa, bakartze sozial eta politikoa, lurralde autonomo eta okupatuaren ixtea... Azken sei hilabeteetan milaka etxe sun- tsitu dituzte israeldarrek euren tanke izu- garriez; 500 lagun baino gehiago hil dituz- te (%65 18 urte baino gutxiagokoak); 20.000 lagun baino gehiago zauritu dituz- te, eta 10.000 bizi guztirako ezinduak gel- ditu dira. Krisi ekonomikoa itzela da Pa- lestinan, lurraldeak, herriak, hiriak eta he- rriak itxita daudelako. Herriarren %50 langabezia daude. Itxierak eraginda duten gaixoak tratamendurik hartu ezinean, bihotzekoak jotako jendea kalean, erdi- tzeotan diren emakumeak ambulanzietan edota mugaldeen inork zaindu ga- be... eta guztietan mingarriena, gure se- metxo maiteek sufritu behar dutena.

Bizi pozez beterik dauden umeak dira indarkeria eta gorrotoaren biktima nagusiak. Haietako batzuk nola hil dituzten neure begiez ikusi dut, eta ez dago esku- biderik guri, amei, leporatu izan digutena leporatzeko: zenbaiten hitzetan, geuk, amek (neuk ere borroka joan nahi zuen 11 urteko seme bat daukat) gure txikiak hiltzera bidaltzen omen ditugu. Ez dute,

ez, gure bihotza ezagutzen; geure bizia emango genuke geure umeak babesteko, eta gu geu joango ginatke borrokara haien tokian. Ezinezkoa izaten da, ordea; pentsatu ere egin baino lehen semearen hiltza mahai gainean izaten dugu. Zer- gatik ez diote Israeli gauza bera lepora- tzen, haien haurrak gureak hiltzera bidal- tzea, alegia? (Mugaldean egoten diren is- raeldar soldaduek 17 eta 23 urte bitartean izaten dituzte). Gazteek euren erara konpondu nahi dute nagusiak kon- pondu ezinean gabiltzana. Zer eman be- harko dugu palestinarrok geure ametsa- rengatik? Zergatik kondenatzen gaitu Is- raeliek bakarrik egotera, jakinda egiten duena egiten duela ere palestinarrekin konpontzera kondenaturik dagoela nahi ala ez?

Palestinarrak bi milioitik gora gara, eta 20 urteren buruan 3 milioi izango gara. Is- raelen eginbeharra bakea negoziatzea eta palestinarroi erabaki propioak hartzen uztea da. Baina beste ezer baino lehen errespetatu egin behar gaitu, ez umiliatu. Indarkeriak jarraitu egiten du, amorruak eta gorrotoak ere bai. Nik galdu egingo dugula uste dut, baina porrot hori behin- behinekoa izango da. Azkenean, borroka luze eta zailaren ondoren amore eman beharko dute. Israel ere larrutik ordain- tzen ari da, ez da aske sentitzen, eta inoiz ez du konfiantzarik edukiko segurtasuna- rekin obsesionaturik dagoelako. Presio- rik eta interesik gabe hitz egiteko bidea aurkitzen dutenean elkar ulertu ahal izan- go dute, eta badakit bakea iritsiko dela, bi herriek nahi dute-eta bihotz-bihotzez. Pa- lestinak aurrera egin nahi du, garatu, eta dagokion tokia bete munduan, beste herri guztiek bezala eskubidea duelako.

## zutabea

Juan Kruz Lakasta

### Nafarroa arragoa

**N**orbera umetan jolasean aritzen zen tokioa da. Nongotartasuna defini- tzeke modu ezin egokiagoa irudi- tzen zait. Definizioa ez da nirea, baizik eta Patxi Zabaletarena. Umetan, arratsaldeak garai hartan sasiz beterik ziren Iruñeko Gaz- telu Gibekeko harresietan jolasean ematen nituenez, teoria horren arabera iruinseme peto-pettoa naiz. Eta hala sentitzen naiz. Bes- talde, baina, Jacan (Huesca) jaiola naiz, eta horrek ere badu bere pisua nire nongotarta- suna erabakitzeke tenorean. Gauzak horrela, Jacan jaiotako iruinseme, nafar, euskal herri- tar sentitzen naiz.

Kasuistika jesuitika astuna da, baina, zen- baitetan bederen, halaber argigarria. Neure adibide pertsonalak agerian uzten du nafar izateko, nafar sentitzeko modu ugari dagoe- la. Inkestek horixe islatzen dute: nafar huts, nafar-euskal herritar, nafar-espainiar, nafar- euskal herritar-espainiar, eta, mugaz harata- go, nafar-frantziar, nafar-euskal herritar- frantziar... Nolanahi ere, Nafarroa Garaiari dagokionez, inkesten arabera nafarrok gara, Estatuan, gure erkidegoarekiko identifi- kazio handiena sentitzen dugunok, Euskal Autonomia Erkidegotarren —hizkera politi- koki zuzena astuna da astuna denez— eta Kataluniarren gainera.

Igandean Baigorria, Nafarroaren Eguna autobusez joateko izena ematen ari ginela- rik, inkesten ebazpena berretsi zuen ikurriña baino baskoagoa den lagunak —politikoki eta gramatikalki zuzena ez bada ere, aski esanguratsua iruditzen zait basko hitza—. «Mayor Oreja lehendakari izateko irrikitan nago», bota zidan supitoki, gupidagabe. Ez nion erantzun. Alta, nire harridura aurpegiak azalpen gehiago ematera bultzatu zuen. «Euskarak erasoak jasanen ditu, manifesta- zioak egingen dituzte, eta guk autobusak an- tolatuko ditugu, haiei sostengua emateko haiek guri hainbatetan sostengua eman di- guten bezala: anaia nagusiaren moduan». To. Nafarrak beti nafar.

## seiko urrea

Emilio Lopez Adan



### Coué jaunaren gorazarretan

**M**ende hasieran, Frantzia- n, gizon argi eta urrikalkor ba- tek, Coué jaunak, jendearen sufrikarioak sendatzeko metodo berri bat asmatu zuen: autosugestia, erran nahi baita gure izpirituaren indarren bi- dez gorputz eta arimaren makurrak zu- zentzeko metodoa. Eriak, goiz guztiz eta arratsetan, bere buruari erran eta errepikatu behar zion: «Zein ongi nai- zen orain», edo «hagitz ongi nago», edo «oso ondo natxion/k», edo «arras on- tsa nüzü», bakoitzak nahi bezala, Coué doktoreak onartzen baitzuten gaixoen hizkuntza, dialekto eta idiolekto guz- tiak. Sofrologia modernoak erakutsi duenez, sinestezineko ahalak baditu iz-

pirituak: ongi garena zinez sinesten ba- du, hark igorriko dizkie mezuak zelula, ehun eta organoei, beren eginkizuna zuzen egin dezaten... eta egingen dute! Berriz, izpiritua mugi dadin norberaren lana da bere burua konbentzitzea, eta hemen heldu da errepikaren egitekoa, etengabeko ur xortak bezala egunean eguneko errateak minaren eta etsipe- naren lauza zulatzen baitu.

Coué jauna Frantzia eta Amerike- tan ibili zen eriak sendatzen, eta 1912an famaren tinian zegoen. Gero ahaztua edo apaldua izan bada ere, be- rriz itzuli da gure artera, eta artikulu la- bur honek haren fama garbitu nahi du. Zeren eta izan baitira izpiritu xangri-

nak, natura ezkorrak, dena trufa eta be- hazun: autosugestia zikindu eta lai- doztatu dute, eta, gehiago dena, politi- kara ere iraganarazi dute irainkizuna. Frantziako hizkuntza arruntean, «Coué metodoaren erabiltzea» leporatzen zaie galtzaile edo galtzekotan diren al- derdiei beren bilkuretan edo agerpene- tan «dena ongi doa», «aitzina ari gara», «argi dakusagu garaipena gurea dela» edo eiteko solasak darabiltenean.

Itsusian amildu nahi izan dute meto- doa, baina ikusirik zein ardura, maiz edo usu erabiltzen den gure artean, he- rritar prestuen eginkizuna dugu Coué jaunaren gorazarrea, eta hauxe izanen da kronista xume honen emaitza era- kuntza nazionalerako. Eta erregu bate- kilan bururatu nahi nuke, jagon saila- ren andere eta jaun adituentzat: nola erran daiteke *Coué metodoa* Hegoalde- ko haurriedek konpreni dezaten mo- duan? Zeren eta hitzen endelegatetik jalgitzen ahal baita ideien argitzea.

## kornerra

Mikel Elorza

### Antzekoa

**E**GUNKARIAN estreinako gauza eskelak begiratzen zituela esaten omen zuen Jorge Oteizak, berea han ote zen ikus- teagatik. Antzera, multinazionalen langi- leek esnatu eta egunkarira jotzen dute, goiz horretan kaleratuko ote dituzten jakiteko. Merkatua alferrikako produktuz behar- rean langabetuz betetzeko lehian dabilta orain. Azkena Moulinex izan da, 4.000ko *stock*-a agindu duena, horietarik ia erdia Frantziako Estatuan. Ekonomia hozten ari omen da, eta badakigu halakoetan langileen patriketan egiten dituela lehenengo izotzak. Aspaldian ez bezain argi izango da noren aurka oihukatu langileen egunean; alegia, noren alde. Poli- ziak ere prestatzen ari dira maiatzaren lehe- nerako, zaintza lanerako. Ez kaleak zaintze- ko, ordea, errepideak baizik. Ea festa-istri- puekin lan-istripuekin baino arrakasta han- diagoa duten. Antzekoa izango da: eskasa.